

**APARTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, 2016KO  
GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK EGITEKO  
1.286/16. DEKRETUZ ONETSIA**

**ZIOEN AZALPENA**

Garapen Jasangarriko Helburuek (GJH) markatzen dute garapenaren nazioarteko agenda berria. 169 helburu konkreturen bitartez, hamazazpi dira datozen 15 urteotan lortu beharreko helburuak. Helburu horiek gobernu erakunde, NBEko agentzia, erakunde pribatuen ordezkari eta gizarte zibileko erakundeen partaidetzarekin proposatu ziren. GHJ horiek, beraz, Nazio Batuek gidatutako kontsulta prozesu masibo baten emaitza dira, erronka komunak ezarriz desberdinkeria eta klima aldaketa bezalako arazo globalei aurre egiteko.

Tokiko erakundeok ere garapenerako nazioarteko agenda honen barruan gaude. Gure erantzukizuna onartzen dugu GHJen ezarpenean, gizarte zibilaren partaidetza sustatzen jarraitzeko, eskuragarri dauden funtsak osatzeko, eta tokiko esparruaren gaitasunak eta esperientzia mahai gainean jartzeko, betiere pertsona ahulenen defentsan. Premisa horietatik abiatuta, Leioako Udalak bat egiten du Nazio Batuen deiarekin, beste erakundeekiko izan behar den osagarritasun eta koordinazioa aintzat harturik. Hori guztia aukerak eta eraldaketa sozial txiki baina garrantzitsuak eskaintzen dituzten prozesuak bultzatzeko. Leioa udalerrri solidarioak modu horretan lagundu nahi du mundu hobe eta justuagoa eraikitzen, giza onura sustatzeko eta gure planeta babesteko.

Garapenerako lankidetzarako 2016ko diru-laguntzen deialdi honen bidez, hiru diru-laguntza titulu onartzea erabakitzen da:

- I. Titulua: herrialde txirotuetakoko garapen proiektuak.
- II. Titulua: Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko garapen proiektuak.
- III. Titulua: Dominikar Errepublikako garapen proiektuak.

Leioako Udaleko Lankidetzak Arloak, Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat, Udalbatzak 2005/12/20an onartutakoak, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua aplikatuz, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen Araudia

onesten duena, garapenerako lankidetzaproiektuak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten da, ondoren jasotzen diren xedapenen arabera.

**1. artikulua-** Deialdi honen xedea, lehiaren araubidean, garapenerako lankidetzaproiektuei Leioako Udalak gordetako aurrekontua banatzea da.

Deialdi honek laguntzak arautzen ditu, irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez herrialde pobreetan garapenerako lankidetzak egiteko. Lehentasunezkoak izango dira jarduerak Latinoamerikan, Afrikan eta Asian, GHJen ezarritako helburu eta zuzentarauen markoan. Bereziki kontuan hartuko dira Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan eta Dominikar Errepublikan egindako proiektuak, udalerriak bertan duen esperientzia eta harremana direla-eta garapenerako lankidetzaren esparruan.

Leioako Udalaren iritziz garapenerako lankidetzak herrialde eta komunitate pobreekiko ekintza oro da, hori komunitate horietako pertsonen bizi-aukerak zabaltzera bideratuta baldin badago. Hau da, abiapuntutzat hartzen du garapena giza garapena dela, hau da, eskubide politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak osorik garatzea helburu duten banan-banako eta taldeko aukerak, askatasunak eta gaitasunak sortu eta finkatzea –nazioarteko lankidetzak honela ulertuta: giza garapen jasangarriaren bidean sareak josteko, elkarrekin ikasteko gaitasunerako eta tokiko esparruko partekatzerako aliantzak sortu eta baliabideak eta gaitasunak mugiarazteko gai den tresna-.

Horregatik, Leioako Gizarte Zerbitzuetako Lankidetzak sailean, garapenerako lankidetzako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira.

### **1. TITULUA:** herrialde txirotuetako garapen proiektuak

#### **2. artikulua- 1. Tituluaren xedea**

Titulu honen helburua da, 2016ko ekitaldian, herrialde txirotuetako garapen proiektuetarako diru-laguntzak arautzea da.

#### **3. artikulua- Erakunde onuradunen baldintzak**

3.1. Irabazi-asmorik ez duten eta deialdi hau argitaratu baino bi urte lehenago EAEko Erregistroan inskribatuta dauden elkarteak. Egoitza zentrala edo ordezkaritza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikoan izan behar dute.

3.2. Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekin obligazioak eguneratuak izatea.

3.3. Gaitasun juridikoa izatea eta 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrak, 13. artikuluan aipatzen dituen baztertze-

ustezkoetan ez egotea laguntza publikoak lortzeko.

3.4. Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzak garaiz justifikatu izana.

3.5. Diru-laguntzak jaso ahalko dituzte, halaber, erakundeen partzuergoek aurkeztutako proiektuek

3.6. I. Titulura aurkezten direnak ezin izango dira II.era eta III.era aurkeztu.

#### ***4. artikulua- Diruz lagundu ahal diren proiektuak***

Diruz lagundu ahal diren proiektuak izango dira, herrialde pobreetako populazio-sektore edo zona gutxietsietan beharrak asetzeko helburua dutenak. Herrialde pobreak Garapenerako Laguntza Batzordearen Laguntza-hartzaileen zerrendan sartutakoak dira (lehentasun geografikorik gabe).

4.1. Lehentasunezko laguntza eskaini behar diete honako taldeei: haurrak, emakumeak, pertsona desplazatu edota iheslariak, landa biztanleak, herri indigenak eta gutxiengo etniko mehatxatuak.

4.2. Balorazio berezia egingo zaie GHJen barruko hurrengo area sektorialak aipatzen dituzten proiektuei, Leioako Udalak lehenetsita eta beste area sektorial batzuk baztertzailak izan barik:

- Pobrezia: pobrezia forma ezberdinak txikitu edota ezabatzeko helburua duten proiektuak (baliabide falta, gosea, malnutrizioa, hezkuntza eta oinarrizko zerbitzuetara iristea, bazterkeria, e.a.).
- Genero berdintasuna: emakumezkoen ahalduntzeari begirako proiektuek laguntzen dute desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egitura ekonomiko, politiko eta sozialak aldatzen. Emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasunak deuseztatzeko ekimenak bereziki baloratuko dira.
- Hiri eta komunitate jasangarriak: hiriak eta gizakien egonlekuak inklusiboak, seguruak, berrigarriak eta jasangarriak izatea lortzea.

4.3 Proiektuek honako zeharkako ardatzak izan behar dituzte: eskubide eta genero ikuspegiak, eta ingurumenaren jasangarritasuna.

#### ***5. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.***

Titulu honetako diru-laguntzen zenbatekoari dagokionez, gehienez, **20.000** euro emango zaie banan-banako erakundeei eta **40.000,00** euro partzuergoei.

**II. TITULUA:** Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko garapen proiektuak

## ***6. artikulua- II. Tituluaren xedea***

Titulu honen helburua da, 2016ko ekitaldian, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko garapen proiektuetarako diru-laguntzak arautzea da.

## ***7. artikulua- Erakunde onuradunen baldintzak***

7.1. Irabazi-asmorik ez duten eta Leioako Udalaren Erregistroan inskribatuta dauden elkarteak. Ondore horietarako ordezkari iraukurtzat joko da, elkarteak egitura adierazgarriak baldin baditu, agiriz egiaztatuta, Leioako udalerrian.

7.2. Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekin obligazioak eguneratuak izatea.

7.3. Gaitasun juridikoa izatea eta 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrak, 13. artikuluan aipatzen dituen baztertze-ustezkoetan ez egotea laguntza publikoak lortzeko.

7.4. Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzak garaiz justifikatu izana.

7.5. II. Titulura aurkezten direnak ezin izango dira I.era eta III.era aurkeztu.

## ***8. artikulua- Diruz lagundu ahal diren proiektuak***

Diruz lagundu ahal diren proiektuak izango dira, Mendebaldeko Saharako kanpamenduetako populazio-sektore edo zona gutxietsietan beharrak asetzeko helburua dutenak.

8.1. Lehenetsitako laguntza eskaini behar diete honako taldeei: haurrak, emakumeak eta pobrezia larrian bizi diren biztanleak, bazterkeria egoeran daudenak.

8.2. Balorazio berezia egingo zaie GHJen barruko hurrengo area sektorialak aipatzen dituzten proiektuei, Leioako Udalak lehenetsita eta beste area sektorial batzuk baztertzailak izan barik:

- Pobrezia: pobrezia forma ezberdinak txikitu edota ezabatzeko helburua duten proiektuak (baliabide falta, gosea, malnutrizioa, hezkuntza eta oinarriko zerbitzuetara iristea, bazterkeria, e.a.).
- Osasuna eta Kalitatezko Hezkuntza: osasun eta kalitatezko hezkuntzara iristea sustatzen duten garapen ekintzak bultzatzea, aukera berdintasuna bermatzeko eta hazten ari den mundu mailako desberdinkeria gainditzeko.
- Genero berdintasuna: emakumezkoen ahalduntzeari begirako proiektuek

laguntzen dute desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egitura ekonomiko, politiko eta sozialak aldatzen. Emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasunak deuseztatzeko ekimenak bereziki baloratuko dira.

8.3 Proiektuek honako zeharkako ardatzak izatea bereziki baloratuko da: eskubide eta genero ikuspegiak, eta ingurumenaren jasangarritasuna.

### ***9. artikulua- Diru-laguntzaren zenbatekoa***

Titulu honetako diru-laguntzen zenbatekoa, gehienez, **34.000 eurokoa** izango da.

### **III. TITULUA: Dominikar Errepublikako garapen proiektuak**

#### ***10. artikulua- III. Tituluaren xedea***

Titulu honen helburua da, 2016ko ekitaldian, Dominikar Errepublikako garapen proiektuetarako diru-laguntzak arautzea da.

#### ***11. artikulua- Erakunde onuradunen baldintzak***

11.1. Irabazi-asmorik ez duten eta deialdi hau argitaratu baino bi urte lehenago EAEko Erregistroan inskribatuta dauden elkarteak. Egoitza zentrala edo ordezkaritza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikoan izan behar dute.

11.2. Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekin obligazioak eguneratuak izatea.

11.3. Gaitasun juridikoa izatea eta 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzko Orokorrak, 13. artikuluan aipatzen dituen bazterte-ustezkoetan ez egotea laguntza publikoak lortzeko.

11.4. Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzak garaiz justifikatu izana.

11.5. III. Titulura aurkezten direnak ezin izango dira I.era eta II.era aurkeztu.

#### ***12. artikulua- Diruz lagundu ahal diren proiektuak***

Diruz lagundu ahal diren proiektuak izango dira, Dominikar Errepublikako populazio-sektore edo zona gutxietsietan beharrak asetzeko helburua dutenak.

12.1. Lehentasunezko laguntza eskaini behar diete honako taldeei: haurrak,

emakumeak, pertsona desplazatu edota iheslariak, landa biztanleak, herri indigenak eta gutxiengo etniko mehatxatuak.

12.2. Balorazio berezia egingo zaie GHJen barruko hurrengo area sektorialak aipatzen dituzten proiektuei, Leioako Udalak lehenetsita eta beste area sektorial batzuk baztertzaileak izan barik:

- Gosearen aurkako borroka: elikagai subiranotasuna sustatzen duten ekimenei arreta berezia jarriz, tokiko erabakitzeko gaitasuna sendotzea da helburua, baita bidezko sarrera maila ere, ekoizpen ekologiko eta kontsumo arduratsuaren parametroen barruan.
- Osasuna eta Kalitatezko Hezkuntza: osasun eta kalitatezko hezkuntzara iristea sustatzen duten garapen ekintzak bultzatzea, aukera berdintasuna bermatzeko eta hazten ari den mundu mailako desberdinkeria gainditzeko.
- Genero berdintasuna: emakumezkoen ahalduntzeari begirako proiektuek laguntzen dute desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egitura ekonomiko, politiko eta sozialak aldatzen. Emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasunak deuseztatzeke ekimenak bereziki baloratuko dira.
- Hiri eta komunitate jasangarriak: hiriak eta gizakien egonlekuak inklusiboak, seguruak, berrigarriak eta jasangarriak izatea lortzea.

12.3. Proiektuek honako zeharkako ardatzak izan behar dituzte: eskubide eta genero ikuspegiak, eta ingurumenaren jasangarritasuna.

### ***13. artikulua- Diru-laguntzaren zenbatekoa***

Titulu honetako diru-laguntzen zenbatekoa, gehienez, **40.000** eurokoa izango da.

### ***I., II. eta III. TITULUETARAKO baldintza eta irizpide orokorrak***

#### ***14. artikulua- Proiektuen baldintzak***

1.- Honako baldintza hauek bete beharko dituzte aurkeztutako proiektuek:

1.1. Herrialde pobreetan tokiko bazkide baten bidez egitea. Tokiko bazkideak nortasun juridikoa izan beharko du, irabazi-asmorik gabeko erakundea izango da, behar bezala eratua eta dagokion erregistroan legez inskribatua, gutxienez, deialdiaren argitalpen-datan. Tokiko bazkideak gutxienez urtebeteko esperientzia izan beharko du proiektuen kudeaketan eta lankidetzaz-aurrekariak izango ditu nahastutako erakundeekin edo populazio

onuradunarekin. Tokiko bazkidea erakunde bakarrak era dezake, edo bik edo gehiagok partzuergoan osatuta. Kasu horretan, partzuergoaren barruan dagoen erakunde bakoitzak aipatu baldintzak bete beharko ditu.

II. Titulurako, eta helmugaren berezitasuna aintzat hartuta, erakunde publikoak onartuko dira tokiko bazkide.

1.2. Proiektuaren populazio onuradunak proiektuaren fase desberdinetan parte hartzea, hau da, proiektua identifikatu, formulatu, gauzatu eta ebaluatzerako orduan. Horretarako, tokiko erakunde publikoen eta gizarte-erakundeen edo erakunde komunitarioen partaidetza konpromiso frogagarriaren bidez justifikatu ahal izango da.

1.3. Ez diskriminatzea arraza, sexu, erlijio edo iritziarengatik.

1.4. Gauzatzeko orduan, nagusiki, ekintza garatzen den zonako tokiko erakundeek edo enpresek parte hartzea. Herrialde edo lurralde horretarako GHJen zuzentarauekin bateragarriak izatea, eta horretarako, herrialdearen erakunde publikoren baten berariazko abala edukiko da, tokiko ordezkaritza izan zein sektorean eskumenik duena.

1.5. Erabilitako bitartekoen, egindako ekintzen, lortutako emaitzen eta planteatutako arazoak gainditzeko proiektu-helburuen lorpenaren arteko harreman koherentea azaltzea.

1.6. Proiektuaren aurrekontu zehatza eta gastuen programazioa sartzeta.

1.7. Gutxienez %25ean kanpoko baliabideekin batera finantzatzea. Baliabideak erakunde eskatzailetik, tokiko erakunde/onduradunetik edo bestelako finantzazio-iturri publiko edo pribatuetatik etorriko dira.

1.8. Proiektu bideragarri eta iraunkorrak izatea, ondorioek jarraitzeko proiektuaren laguntza amaitzen denean. Alderdi hori beharrezkoak diren bideragarritasun-ikerketekin justifikatu beharko da.

1.9. Dagoeneko egin den ekintzarik ez aurreikustea.

1.10. Egoki den deialdia argitaratu ondoren hastea, eta gehienez, erakunde eskatzaileari diru-laguntzaren sarrera egin eta ondorengo hiru hilabeteetan. **Hasiera datak izan behar du, edozein kasutan, deialdia egiten den urteko abenduaren 31 baino lehenagokoa.**

1.11. Proiektua garatzea, **gehienez, hamabi hilabeteren buruan.**

1.12. Genero ikuspegi txertatzea proiektuaren bizi-zikloan.

2. Honako proiektuak ez dira baloratuko, eta beraz, ez dira onartuko:

2.1. Deialdi honen baldintzak betetzen ez dituztenak. Eta beraz, Leioako Udalak lehenetsitako populazio subjektuaren pobreziaren kontrako borrokaren estrategian, bidezkoak ez direnak.

2.2. Koherenteak ez direnak, hau da, planteatzen den arazoaren, helburuen eta planifikatutako jarduerekin gainditzeko adierazitako emaitzen artean erlaziorik ez dutenak.

2.3. Ebalua daitezkeen adierazleak ez dituztenak.

2.4. Aurreikusitako emaitzak lortzea bermatzen ez dutelako, bideragarriak ez direnak.

2.5. Generoaren ikuspuntua kontuan hartzen ez dutenak.

2.6. Tokiko gaitasunak sendotzen ez dituztenak.

2.7. Populazio subjektuaren partaidetza bermatzen ez dutenak.

2.8. Ekologiaren ikuspegitik iraunkorrak ez direnak.

2.9. Artikulu honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenak eta proiektuei, erakunde eskatzaileei edo tokiko erakundeei eskatutakok baldintzak betetzen ez dituztenak.

### ***15. artikulua.- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak***

15.1. Diruz lagundu ahal diren gastuak dira, indarrean dagoen araudiarekin ados, behar bezala justifikatuta egonik, beharrezkoak direnak eta proiektu edo jardueraren izaera eta garapen normalari erantzuten diotenak.

15.2. Diruz lagundu ahal dira kostu zuzenak, termino hauen arabera:

- Lursailak edo eraikinak erostea. Erosketak salbuespenezkoak izango dira eta, nolana ere, argi eta garbi frogatu beharko da jabetza erakunde publiko edo komunitarioarena izango dela. Jabetza eta titulartasuna zehaztu beharko dira eta, horretarako, nahikoa dokumentazio frogagarri aurkeztuko da.
- Eraikuntza edo azpiegiturak eraiki edo birgaitzea. Horien jabetza araubidea eta titulartasuna zehaztuko dira, eta nahikoa dokumentazio frogagarria aurkeztuko da.
- Eraikuntza edo azpiegiturak eraiki edo birgaitzeko kostuetarako, gehienez, eskatutako diru-laguntzaren %40 ordainduko da.



- Ekipo eta materialak erosi eta garraiatzea.
- Tokiko langileen kostuak. Dokumentuen bidez egiaztatu beharko da halako kontratu-motetarako batez besteko ordainsaria proiektua garatuko den herrialdean edo zonan.
- Erbesteratutako langileen kostuak; gehienez eskatutako diru-laguntzaren %10 izango da. Baztertuta daude proiektuaren jarraipenari eta ebaluazioari lotutako langileen gastuak. Pertsona bidaltzeko egokitasunari eta beharrari buruzko justifikazio-memoria aurkeztu beharko da.
- Tokiko giza baliabideak gaitu eta prestatzeko kostuak.
- Proiektuaren funtzionamenduaren kostuak, proiektua garatzeko beharrezkoak diren material suntsikor eta bestelako hornidurak erosteari buruzkoak. Muga eskatutako diru-laguntzaren % 15 izango da. Erakunde eskatzailearen funtzionamendu-gastuak ezingo dira sartu, zeharkako gastuetan sartu behar direlakoan.
- Leioan egiten diren eta lankidetzaren egitasmoarekin zuzenean lotuta dauden garapenerako sentsibilizazio- edota hezkuntza-ekintzek eskatutako diru-laguntzaren %5 ezingo dute gainditu, I. Tituluaren kasuan, eta %2 II. eta III. Tituluaren kasuan.
- Zeharkako kostuak ere diruz lagundu ahaliko dira, hau da, administrazio- eta kudeaketa-gastuak, proiektuari zuzenean lotuak badaude erakunde eskatzaileak identifikatu, formulatu jarraitzeko eta ebaluatzeko. Honako baldintzak bete beharko dira: Zeharkako kostuak proiektua gauzatatutakoan edo ekintza garatutakoan justifikatuko dira. Zeharkako kostuen ehunekoak ez du gaindituko eskatutako diru-laguntzaren %5.

15.3. Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzak, oro har, eskatutako zenbatekoaren %100ekoak izango dira. Kasu berezietan, Leioako Udalak eskatutakoa baino gutxiago eman dezake proposatutako gastuak aztertu ondoren eta justifikatutako arrazoiengatik, betiere, horrela, ez bada jardueraren bideragarritasuna arriskuan jartzen.

15.4. Araudi honek jasotzen dituen diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk, xede berbererako, emandakoekin. Dena den ezin izango da gainfinantzaketarik gertatu, hau da, beste erakunde batzuekin batera lortutako diru-laguntzek ezin izango dute gainditu jardueraren kostu osoa.

## ***16 artikulua.-Sentsibilizazioa***

Erakunde onuradun guztiek Leioan garatu beharreko sentsibilizazio proposamen edota ekintza bat jasoko dute, lankidetzaren proiektuarekin zuzenean lotuta.

Udalerrian lankidetzaren ekimenak zabaltzean datza, auzotarren gaineko inpaktua

izan dezaten. Horrela, gizarte zibilaren partaidetza aktiboa sustatzen da eta beharrezko kontzientzia kritikoa sustatzen laguntzen da, baita ekintza solidarioak ikusgarri egin ere. Hortaz, bereziki baloratuko da ekintzek Leioako herritarren laguntza edo partaidetzarekin kontaktzea.

Deialdi honen barruko sentsibilizazio jarduera publikoak batu eta koordinatzea proposa diezaieke Udalak proiektu desberdinei antolakuntza eta zabalkundea errazteko, kostuak murrizteko eta Leioan inpaktu handiagoa lortzeko.

### ***17. artikulua - Diruz lagundutako ekintzak jarraitzea***

**17.1.-** Diru laguntza jasotzen duen elkarteak, proiektua **hasi baino bi hilabete lehenago, nahitaez**, kontrako alderdiari funtsak igorri izanaren banku-egiaztagiria aurkeztu beharko du, baita tokiko bazkidearekin egindako hitzarmena ere, deialdi honetako 13 eta 14. artikuluek xedatutakoarekin ados.

**17.2.-** Proiektua amaitzen denean, azken narrazio-txostena eta azken finantza-txostena aurkeztu beharko dira (III. eranskinean dagoen azken txostenaren ereduaren arabera).

**17.3.-** Diru-laguntza jaso duten ekintzak Leioako Udalaren aurrean justifikatu beharko dira, hurrengo justifikazio-dokumentazioa aurkeztuz:

- Garatutako jardueraren txosten zehatza
- Oroitidazki ekonomikoa, diruz lagundutako jarduerak sortutako diru-sarrerara eta gastuen balantzea barne.
- Aurreko atalean adierazitako gastuen egoera osatzen duten partida bakoitzeko, gastu edota inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa eta data identifikatuta.
- Aurreko atalean adierazitako sarreraren egoera osatzen duten partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrerara edo baliabideen, eskatzen den finantzazio propioa barne, zerrenda xehatua, horien zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
- Jardueraren ondorioz sortutako gastuen frogagiriak egindako jardueraren zenbateko guztia osatu arte. Frogagiriak fakturak edo balio frogagarria duten bestelako dokumentuak izango dira, merkataritzaren trafiko juridikoan baliagarriak badira. Edo bestela, proiektuaren auditoria eginez gero, hori aurkeztu.
- Leioako Udalaren kargura diru-laguntzari egotzitako kostuen frogagiritan proiektuaren izena (edo laburdura), tokiko erakundearen izena ala erakunde eskatzailearena eta deialdiaren urtea azalduko dira.
- Liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD ROM eta abarren ale bana, horiek diru-laguntza jaso duen jarduerarengatik edo ekitaldiarengatik argitaratu edo editatu badira.

17.4. Justifikatzeko, **gehienez, 45 egun izango dira**, proiektua amaitzen den unetik zenbatzen hasita.

17.5- Diru-laguntza jaso duen erakundeak Leioako Udalaren berariazko baimena izan beharko du hasieran aurrez ikusitakoarekiko ekintza gauzatzeko orduan aldaketa esangarriak egiteko. Aldaketa esangarria izango da aurrekontu-partida bakoitzeko onartutako %10etik gorako aldaketa. Arrazoi justifikatuak izango dira proiektua toki desberdinean kokatzea, pertsona edo talde onuradunak aldatzea eta tokiko bazkidea aldatzea, besteak beste.

### ***18. artikulua- Hautespene- eta balorazio-irizpideak***

*I. eranskinean aipatuko dira.*

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### ***19.- artikulua- Emateko araubidea: lehia***

1.- I., II. eta III. Tituluetako diru-laguntzak araudi honetan xedatutako baldintzen arabera emango dira eta lehiaren araubidea jarraituko da.

2.- Diru-laguntza lehiaren araubidean ematea ulertzen da eskabideen pluraltasuna izango dela aurrez ikusten denean eta ebazteko prozedura bakarrean eskabideak elkarren artean alderatu behar direnean. Beraz, diru-laguntzak lehiaketaren araubidean emango dira eta araudi honetan xedatzen diren irizpideen arabera, baloraziorik altuena lortu duten eskabideei emango zaie, aurrekontu-partidan izendatutako zenbatekoa muga izanik.

3.- Diru-laguntzak Alkatetzaren Dekretuaren bidez emango dira, eta erreferentzia-oinarritzat hartuko da ekintza bakoitzaren kasuan onartutako aurrekontua, hain zuzen ere, diruz lagundu nahi dena.

4.- Batzorde Teknikoa izango da antolamendu eta instrukzioko kide anitzeko organoa, emakida proposamenak egiteko ardura duena. Deialdi honetan aurreikusitako Titulu guztietarako Batzorde Teknikoa honako kide hauek osatuko dute:

- Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordearen presidentea.

- Emakume Saileko teknikari arduraduna.

- Haurtzaro eta Familia Saileko teknikari arduraduna.

- Lankidetzeta Saileko teknikari arduraduna.

Idazkari lanetan, hitza egiteko eskubidearekin baina botorik gabe, Udal Idazkaria egongo da, edo berak eskuordetutako pertsona.

Batzorde Tekniko honek, gaiगतik egoki irizten diren aholkulariak eduki ditzake.

5.- Gizarte Zerbitzuen aurrekontu esleipenetik ordainduko da diru-laguntza, 188.740,31 euroko partidarekin 2016ko ekitaldian, eta horrela, 0,7a betez.

## ***20. artikulua- Eskabideak aurkeztea, dokumentazioa eta epeak***

1.- Urtero, Alkatetza-presidentetzak dagokion deialdia onetsiko du, eta hala, interesatu bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahalko du.

2.- Eskabidea aurkeztuz gero, deialdi honetan planteatutako baldintza guztiak oso-osorik eta berariaz onartzen dira.

3.- Erakundeek deialdi honek aurrez ikusten dituen laguntzak lortu nahi badituzte, eskaera eskabide normalizatuan aurkeztu beharko dute, II Eranskinean dagoen ereduaren arabera, behar bezala osatua. Halaber, aurkeztutako proiektuaren kopia eman beharko dute formatu elektronikoa.

Honako agiri hauek ere erantsi beharko dira, euskarri fisiko edo informatikoan:

a). Behar bezala legeztatutako estatutuen fotokopia.

b). Erakunde eskatzailea dagokion Eusko Jaurlaritzako erregistroan inskribatuta dagoela adierazten duen agiria.

c) Erakunde eskatzailearen IFKren fotokopia.

d) Eskaera egiten duenaren NANaren fotokopia eta eskaera sinatzen duenak erakundearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria.

e) Eskabidearen aurreko urteetako finantza egoerak.

f) Halaber, eskatzaileak zerga-betebeharren ordainketa egunean daukala egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion Ogasunak egindakoa.

g) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua, obligazioekin eguneratua dagoela ziurtatzen duena.

h) Izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi ostean, itzultzeko edo zigortzeko prozeduran murgildua ez daudela azaltzen duen aitorpena.

i) Erakundeen taldeek aurkeztutako eskaeren kasuan, horiek arautzeko hitzarmena.

j) Eskaeraren xede diren ekintzengatik beste edozein laguntzaren egoera aitortzea: emanda, eskatua edo izapidetzen.

k) Eranskinetako galdeketaren arabera, behar bezala osatutako proiektua; egin beharreko jarduera edo jarduerak, justifikazioa eta deskribapena, helburuak, ebaluazio-adierazleak, egutegia, metodologia eta aurrez ikusitako gastuen aurrekontu banatua azalduko dira.

l) Hala badagokio, proiektuan erakundeen edo taldeen partaidetza egiaztatzen duen dokumentazioa.

m) Hala badagokio, herrialdeko tokiko eragileen partaidetzari dagozkion bermeak edo konpromisoak eta tokiko bazkidearekin hitzarmen-proiektua.

n) Hala badagokio, bideragarritasun-ikerketak.

o) Hala badagokio, ondasun higiezinen eta lursailen jabetza-frogagiriak.

4.- Eskabideak, derrigorrezko dokumentazioarekin batera, honakoan aurkeztuko dira:

4.1. Leioako Udaleko Erregistro Nagusian (Elexalde kalea, 1), funtzionamendu-ordutegiaren barruan.

4.2. Era berean, aurkezpena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak (285. EAO, 1992ko azaroaren 27koa) 38.4. artikuluan xedatutako edozein tokitan egin daiteke.

5.- Eskabideak 15 eguneko epean epean aurkeztu beharko dira deialdi hau udal txeko iragarki-oholean eta udaleko webgunean argitaratzen denetik zenbatzen hasita ([www.leioa.eu](http://www.leioa.eu)).

6.- Gizarte Ekintza, Osasun, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako

Batzordearen presidentek elkarte eskatzaileei eska diezaieke egoki irizten duen nahi beste dokumentazio eta informazio osagarri eskabidea behar bezala ebaluatu eta ebazteko.

### ***21. artikulua- Eskabidearen hutsak zuzentzea eta espedientea artxibatzea***

Eskabideak ez badaude behar bezala osatuta edo nahitaezko dokumentazioa falta bazaie, erakunde eskatzaileei eskatu ahal izango zaie 10 lanegunetan hutsak zuzentzea edo derrigorrezko dokumentuak eranstea. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskaera bertan behera utziko da.

### ***22. artikulua - Instrukzioa, ebaluazioa eta ebaztea***

Laguntzak eman edo, hala badagokio, ukatzeko Alkatetzaren Dekretua erabiliko da.

Eskabidea ukatuko da erakunde eskatzaileak egiaztatzen ez badu ordainketak egunean dauzkala Bizkaiko Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzaren. Modu berean, ukatu egingo da egoki diren partiden kreditua agortzen bada edo diruz lagundu ahal den puntuazioaren muga jaso ez bada.

Eskatutako laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenek administrazio-bidea agortzen dute eta horien kontra aukeran interesdunek berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango dute erabaki duen organoaren aurrean. Bestela, zuzenean kontra egin dezakete Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioaren aurrean.

Eskaerak ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, horiek hartzeko epea amaitzen den unetik zenbatzen hasita. Data horretan berariazko ebazpenik ez badago, gaitzetsizat joko dira.

### ***23. artikulua- Diru-laguntzak ordaintzea***

Ezarritako prozeduraren arabera, diru-laguntzak onartu eta egoki diren administrazio tramiteak egin ondoren, ordainketa egingo da. Diru-laguntzak ordainketa bakarrean (% 100) eskuratuko dira.

Ordainketa oso-osorik transferitu beharko zaio tokiko bazkideari (zeharkako kostuak eta sentsibilizaziorako gordetako partida izan ezik).

Diru-laguntza jaso duen erakundeak proiektua hasi eta bi hilabetera bidali beharko du beste aldeari funtsak transmititu izanaren banku-frogagiria.

### ***24. artikulua- Hitzarmenak tokiko bazkidearekin***

1.- Diru-laguntza emango dela ebazten denean, erakunde esleipendunak tokiko bazkidearekin proiektuaren garapenerako erantzukizun bateratuaren hitzarmena sinatuko du eta Leioako Udalean aurkeztu beharko du bi hilabeteren buruan.

2.- Aipatu hitzarmenak, gutxienez, honakoak izango ditu:

a). Bi aldeek laguntzak arautzeari buruzko deialdi honen edukia ezagutzen dutela baieztatzea eta sortutako betebeharrak beteko dituztela berariazko konpromisoekin adieraztea.

b) Laguntzaren bidez erositako ondasun higikor eta higiezin guztiak diru-laguntza jaso duen populazioaren jabetzakoak izango direla berariaz adieraztea. Hori ezinezkoa balitz, tokiko bazkidearena izango dela. Izan ere, erabileraren jarraipena bermatu beharko da.

c) Proiektua gauzatzeari buruz bi aldeen artean sor daitezkeen gatazkak ebazteko hautatuko diren mekanismoak berariaz adieraztea.

d) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa berariaz adieraztea.

### ***25. artikulua- Erositako ondasunen jabetza eta erabilera***

Laguntzaren bidez erositako ondasun higikor eta higiezin guztiak diru-laguntza jaso duen populazioaren jabetzakoak izango dira. Hori ezinezkoa bada, proiektuaren barruko zerbitzuak eskaintzen dituen tokiko erakundearenak izango dira eta erabileraren jarraipena bermatu beharko da.

### ***26. artikulua- Ekintzak justifikatzeko epea eta modua***

Diru-laguntza jaso duten ekintzak egin eta Leioako Udalaren Garapenerako Lankidetzaren Arloaren aurrean justifikatu beharko dira gehieneko epeetan eta ordenantzan edo laguntzak emateko ebazpenean aurrez ikusitako justifikazio-dokumentuak aurkeztuz, alde batera utzi gabe erakunde onuradunak eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu behar duela, beharrezkotzat jotzen bada diru-laguntza jaso duten ekintzak justifikatzeko.

### ***27. artikulua.- Diru-laguntza egokitzea***

Diru-laguntza jaso duten jarduerak justifikatzeko emaitza amaitu ostean guztia egiaztatu eta justifikatu gabe edo ekintzen egiazko kostuak aurrekontuan zeudenak baino txikiagoak badira, diru-laguntzaren zenbatekoa moldatu egingo da egiaz justifikatutako kostuen arabera edo egindako ekintzen egiazko kostuak aurrekontuan jasotakoak baino txikiagoak badira, diru-laguntzaren zenbatekoa moldatu egingo da egiaz justifikatutako kostuen

arabera. Kasu horretan, erakunde onuradunak gehiegiz jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko ditu.

### ***28. artikulua.- Ez-betetzeak***

Laguntzen erakunde onuradunak deialdi honetan, laguntzak ematen dituen ebazpenean edo aplikazio-araudian, xedatutako edozein baldintza ez badu betetzen, Alkatetzaren Dekretuaren bidez eta erakunde onuradunari entzun ondoren, emandako diru-laguntza bertan behera utziko da eta onuradunek jasotako zenbatekoak gehi diru-laguntza ordaindu zenetik legezko interes aplikagarriak itzuli beharko dituzte, alde batera utzi gabe dagozkion gainerako ekintzak.

### ***29. artikulua.- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntza publikoen arlokoak betetzea.***

1.- Deialdi honetan aurrez ikusitako laguntzak eman eta ordaintzeko erakunde eskatzaileek honakoak egiaztatu beharko dituzte: zerga-betebeharrak eta gainerako eskubide publikoak nahiz Gizarte Segurantzaren aurrekoak betetzen dituztela. Hori egiaztatzeko, betebeharra onartuta eta ordainduta dagoela eskabidean aurkeztu beharko da eta ematen den unean mantendu beharko da.

2.- Era berean, deialdi honek aurrez ikusten dituen laguntzak erakunde onuradunari eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, edozein itzultze- edo zigor-prozedurak amaitua egon beharko du, Leioako Udalak beste edozein arlotan emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari bada.

### ***30. artikulua.- Erakunde onuradunen obligazioak***

Erakunde onuradunek berariaz jaso utziko dute Leioako Udalaren babes lagundutako jarduera guztietan, hedatu, zabaldu edo, hala badagokio, argitaratzen badira. Dokumentuak EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira.

Leioako Udalaren babes adierazteko orduan, Udalaren marka ofiziala erabiltzeari buruz nortasun korporatiboaren eskuliburuak xedatutako irizpideei erreparatu beharko zaie. Nolanahi ere, kartelak jartzeari dagokionez, udal araudia beteko da.

Erakunde onuradunak, ahal duen neurrian, deialdi honekin lotuta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jardueretan, arkitektura eta komunikazio hesiak ezabatzeko konpromisoa hartzen du.



### ***31. artikulua.- Kanpoko laguntza finantzarioa eta laguntzak elkartzea***

1.- Proiektuaren aurrekontu guztia estaltzeko kanpoko laguntza behar da eta erakunde eskatzaileak justifikatu behar duen zenbatekoa honakoek osatuko dute:

1.1. Erakunde eskatzailearen ekarpenek

1.2. Tokiko erakundearen ekarpenek

1.3. Bestelako ekarpen publiko edo pribatuak

2.- Erakundearen ekarpenentzat joko da proiektua garatzeko berariaz erabilitako giza baliabideen eta bitarteko materialen balorazioa.

3.- Tokiko erakundearen ekarpenentzat jo daitezke espeziaz egindako ekarpenak, erakundearekiko eragile independenteek behar bezala baloratutakoak, aurkeztutako proiektua egiteko ezinbestekoak badira, besteak beste, eskulana, ikerketa teknikoak, lurrak eta azpiegiturak.

4.- Artikulu honetan aipatutako ustezko guztietan, dokumentuen bidez egiaztatu behar da ekintza egiteko funts propioen jatorria, baita beste iturrietatik lortutakoena ere, hala nola finantzazio-agentzietatik, beste administrazio edo erakunde batzuetatik. Horiek batera finantzatzen direla justifikatzeko erabiliko dira, beharrezkoa baita.

5.- Erakunde eskatzailearen edo tokiko erakundearen ekarpena giza baliabideak, eraikinak, lursailak, azpiegiturak edo antzekoak badira, lan-kontratuak, nominak edo ordainsarien erreferentziak, katastroaren balorazioak, jabetza-eskriturak, ondasunen erosketa-kontratuak edo antzekoak aurkeztuko dira, ekarpenaren zenbatekoa berresteko.

6.- Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste herri-administrazio edo erakunde pribatuak emandako diru-laguntzekin, horiek helburu eta xede bera badute, baina betiere diru-laguntza jaso duen proiektuaren zenbatekoaren % 100 gainditzen ez badute. Ustezko horretan, soberakina itzultzeari ekingo zaio.

Xede horrez, deialdi honetako erakunde eskatzaile eta onuradunek Leioako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Arloari jakinaraziko dizkiete beste erakundeetatik lortutako laguntzak edo lor ditzaketanak.

### ***32. artikulua.- Diru-laguntza aldatzea***

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, ebazpena alda dezakete, deialdian zehaztutako irizpideak eta mugak aplikatuz. Horretarako, diru-laguntzaren helburua betetzat jo behar da eta, nolana ere, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak, nazional edo nazioartekoak, diru-laguntzak edo laguntzak eman dituzte.

### ***33. artikulua.- Jarraipena eta kontrola***

Erakunde onuradunek Leioako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Arloari bidali beharko dizkiote narrazio- eta ekonomia-txostenak aipatutako epeetan. Era berean, garatu beharreko jardueren helburua edo izaera nabarmenki aldatzen duen edozein gorabehera jakinarazi beharko diote. Era berean, Leioako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Arloarekin lankidetzan jardun beharko dute jardueren jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

### ***34. artikulua.- Jarduerak ebaluatzea***

Leioako Udalak Batzordea izenda dezake deialdi honen babesean diru-laguntzak jaso dituzten ekintzak jarraitu eta ebaluatzeko.

Ebaluazio-batzordean Udaleko langileekin batera kanpoko aholkulariek parte har dezakete.

Deialdi honetan aurrez ikusitako diru-laguntzen erakunde onuradunek batzordearekin lankidetzan jardun beharko dute eskatutako jardueretan.

## ***AZKEN XEDAPENA***

Diru-laguntzak emateko deialdi honetan aurreikusita ez dauden gauzetan, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra ezarriko da, hala nola uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia eta Leioako Udalean ematen diren Diru-laguntzetako Oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra onartzen diren.